



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO TOKI ENTITATEEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2004**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskadiko Toki Entitateen gaineko txostena jaulki du, 2004ko urtealdiari buruzkoa. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Erakunde fiskalizatzaileak EAEn udalen eta udalaz gaindiko entitateen Kontu Orokorrak aztertu ditu, eduki formala eta toki alorraren finantza egoera balio-neurtzen duela. 250 udaletatik 246 udalen Kontuak aztertu dira eta udalaz gaindiko 61etatik, 51renak. Armiñon eta Berantevillako udalek ez dituzte beste behin kontuak aitortu HKEEren aurrean; gainera, Meñaka eta Zigoitiko udalek ere ez dituzte 2004ko ekitaldiari dagozkion kontuak aurkeztu.

Udalen finantza egoerari dagokionez, txostenak azpimarratu du udalak 2000-2004 aldian bilakaera negatiboa izan duela, izan ere, sarrera arrunten igoaldiak eta finantza zamaren beheraldiak, ezin berdindu izan baitute funtzionamendu gastuen gorakada.

Halaber, termino globaletan, inbertsio garbiak aurreko ekitaldiarekiko % 10,22ko beheraldia izan duela azaleratu da. Hauek horrela izan arren, diru-laguntza bitartez eskuratutako finantzaketa % 32,08 igo da. Biztanleko inbertsio garbia 224 eurokoa izan da.

Biztanleko guztizko gastuaren igoera -2003ko ekitaldian izan zenarekiko- % 2,16koa izan da, EAEk izan zuen inflazioa baino txikiagoa, %2,6 alegia. Presio fiskalak, ordea, inflazioa baino igoera zertxobait handiagoa izan du, biztanleko eurotan 437 euro egin dituela.

Udalek ekarritako datuetatik eskuratutako udalaren zorpetze txertatua 2004ko abenduaren 31n 535 milioi eurokoa izan da, biztanleko 253 euro eginez, aurreko ekitaldiarekiko ia aldagabe eusten diola.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Udalaz gaindiko erakundeei dagokien zorpetzeak ere bere horretan eusten dio, 455 milioi euroan. Zor honen zatirik handiena, % 86, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren titulartasunekoa da eta Bilboko Metroa eraikitzeke erabiltzen da.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak txostenean adierazi du entitate hauek ematen dituzten zerbitzuen kostua, uraren hornidura eta saneamendua, garraio eta baso aprobetxamendu zerbitzuak salbuetsita, nagusiki diru laguntza arrunten bitartez finantzatzen dela eta gogorarazi du, kudeaketa hobetzeko zerbitzuen kostuaren analisia egin behar litzatekeela eta elkartutako erakundeei prezioetan eragin behar litzaikeela. Jokabide honek zerbitzuen eragimen maila zehazten lagunduko luke, eragiten dituzten mentsak edo superabitak abiaburu hartuta.

Txostenaren atal argigarrietan udalen arteko hainbat alderaketa egin dira, biztanleria geruza eta dagokien Lurralde Historikoaren arabera sailkatuaz. Amaitzeko, txostenari txertatu zaizkion hainbat eranskinetan, udalen eta udalaz gaindiko erakundeen kontuen informazio banakakoa eman da eta Kontu Orokorraren osaerari eta aurkezpenari dagokionez, haiek dituzten obligazio formalak betetzeari buruzkoa.